


Euskal AEko industria-prezioek % 1,3 egin dute gora 2023ko ekainean, aurreko hilaren aldean

2022ko ekainarekin alderatuta, industria-prezioek % 5,9 egin dute behera

Euskal AEko industria-prezioek % 1,3 egin dute gora 2023ko ekainean, aurreko hilaren aldean, Eustaten datuen arabera. Ekaineko urtetik urterako tasak, zeinak azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen duen, aldiz, % 5,9 egin du behera.

Analisi zehatzago batek erakusten du honako hauek izan direla 2023ko ekainean prezioetan aurreko hilaren aldean jaitsiera nabarmenak izan dituzten sektoreak: *Botiken fabrikazioa*, prezioetan % 2,1eko jaitsiera izan baitu; *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza*, % 1,5eko jaitsiera izan baitu; *Ateratze-industriak*, % 1,2koa; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, % 0,9koa. Prezioetan hiletik hilerako igoera nabarmenak izan dituzten sektoreak, berriz, hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 7,9ko igoerarekin; *Metalurgia eta produktu metalikoak*, % 1,0ko igoerarekin eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa*, % 0,8rekin.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, 2023ko maiatzaren aldean, *Energiak* % 4,7 egin du gora prezioetan. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* prezioek % 0,4 egin dute gora, eta *Ekipo-ondasunen* % 0,2. *Kontsumo-ondasunen* prezioek, aldiz, % 0,9 egin dute behera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioetan izandako % 1,0ko jaitsieraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioetan izandako % 0,1eko jaitsieraren ondorioz.

Urtetik urterako terminoetan, 2023ko ekainean, 2022ko ekainaren aldean, prezioen hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 12,4), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 10,1), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 9,9), *Ura* (% 8,9) eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 8,4). Urtetik urterako terminoetan jaitsiera handiena izan duten prezioak, berriz, honako adar hauetakoak izan dira: *Koke-lantegiak eta petrolioaren finntzea* (% 35,7); *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 16,1), eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 3,1).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	130,3	1,3	-5,9
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	122,1	-1,2	8,0
Manufaktura-industria	128,7	0,2	-3,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	130,5	-0,7	8,4
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,6	-1,5	10,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	149,6	-0,9	9,9
Kokeak eta petrolioaren finntzen	129,9	0,3	-35,7
Industria kimikoa	149,6	-0,1	-0,3
Botiken fabrikazioa	126,5	-2,1	5,2
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	121,7	0,2	12,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,0	1,0	-3,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,7	0,8	-0,1
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	116,7	0,0	3,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,3	0,3	6,0
Garraioko materialen fabrikazioa	112,9	0,0	6,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,0	-0,7	5,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	140,1	7,9	-16,1
Ura	131,9	-0,3	8,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	127,7	-0,9	6,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	118,0	-0,1	6,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	129,3	-1,0	7,0
Ekipo-ondasunak	118,7	0,2	5,4
Bitarteko ondasunak	135,6	0,4	1,5
Energia	137,7	4,7	-27,3

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Uztailaren 19a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde handi guztietan, *Energian* izan ezik, % 27,3ko jaitsiera izan baitu. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 6,9 egin dute gora, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioetan izandako % 7,0ko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioetan izandako % 6,3ko igoeraren ondorioz. *Ekipo-ondasunen* prezioek % 5,4ko igoera izan dute, eta *Bitarteko ondasunek* % 1,5ekoa.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **93,70**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62